



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA

Administrazio Erregistroen eta Toki
Araubidearen Zuzendaritza

JUSTICIA Y
ADMINISTRACION PUBLICA

Dirección de Registros
Administrativos y de Régimen
Local

EBAZPENA, 2011KO EKAINAREN 15EKOA, ADMINISTRAZIO ERREGISTROEN ETA TOKI ARAUBIDEAREN ZUZENDARIARENA, ELGOIBARKO (GIPUZKOA) "INAZIO BEREZIARTUA" MUSIKESKOLA ELKARTEAK ESKATUTAKO ESTATUTU-ALDAKETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ELKARTEEN ERREGISTRO NAGUSIAN INSKRIBATZEN DUENA

RESOLUCIÓN DE 15 DE JUNIO DE 2011 DEL DIRECTOR DE REGISTROS ADMINISTRATIVOS Y REGIMEN LOCAL, POR LA QUE SE INSCRIBE EN EL REGISTRO GENERAL DE ASOCIACIONES DEL PAIS VASCO LA MODIFICACIÓN ESTATUTARIA PROMOVIDA POR LA ENTIDAD DENOMINADA "INAZIO BEREZIARTUA" MUSIKESKOLA DE ELGOIBAR (GIPUZKOA)

ELGOIBARKO (GIPUZKOA) "INAZIO BEREZIARTUA" MUSIKESKOLA izeneko erakundeak onartutako estatutu-aldaketa Elkartearen Erregistro inskribatzeko hasitako espedientea dela-eta, ondorengoan oinarrituz:

En relación con el expediente promovido por la entidad denominada "INAZIO BEREZIARTUA" MUSIKESKOLA de ELGOIBAR (GIPUZKOA), para la inscripción en el Registro de Asociaciones de la modificación estatutaria aprobada por la misma, y en base a los siguientes:

AURREKARIAK

ANTECEDENTES DE HECHO

I.- ELGOIBARKO (GIPUZKOA), "INAZIO BEREZIARTUA" MUSIKESKOLA izeneko erakundeak, 1984ko Ekainaren 19an eraturakoak eta, 1984ko Irailaren 14an Elkartearen Erregistroan AS.R.P.G.01551 zenbakiarekin inskribatutakoak, 2011ko Martxoaren 17an izandako Batzar Orokorrearen ezohiko bileran, beharrezko bozketa-quorumarekin eta legezko moduan egindako deialdiaren ondoren, estatutu-aldaketa erabaki zuen, honakoa alegia:

I.- La entidad denominada "INAZIO BEREZIARTUA" MUSIKESKOLA de ELGOIBAR (GIPUZKOA), constituida el 19 de Junio de 1984 e inscrita en el Registro de Asociaciones con fecha 14 de Septiembre de 1984 y número AS.R.P.G.01551 en sesión extraordinaria celebrada por su Asamblea General el día 17 de Marzo de 2011 con el quorum de votación requerido y previa convocatoria realizada en legal forma, acordó la modificación de sus Estatutos, consistiendo la misma en:

"una nueva redacción de todo el articulado, adaptándolo a lo dispuesto en la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de Asociación, y a la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi; actualizando los fines, en el Artº 2º; señalando que el domicilio social estará ubicado en Aita Agirrerren Plaza 4, de Elgoibar, C.P. 20870, en el Artº 3º; así como cambiando la denominación, que en lo sucesivo será ASOCIACIÓN "INAZIO BEREZIARTUA" MUSIKA ESKOLA ELKARTEA."

"araudi osoaren berridazketa, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoari, eta Euskadiko Elkartei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeari egokitu egiten da; 2. Artikuluan helburuak gaurkotuz; 3. Artikuluan, egoitza soziala Elgoibarko Aita Agirrerren Plazan 4, K.P. 20870 egongo dela aipatuz; eta bere deitura aldatuz, aurrerantzean ASOCIACIÓN "INAZIO BEREZIARTUA" MUSIKA ESKOLA ELKARTEA" izango dela".

II.- Por el Servicio competente se ha analizado la documentación presentada, a fin de comprobar si la entidad solicitante está incluida en el ámbito de aplicación de la Ley 7/2007, de 22 de junio, de

II.- Zerbitzu eskudunak aurkeztu diren agiriak aztertu ditu, honako alderdiok egiaztatzeko: alde batetik, erakunde eskatzailea Euskadiko Elkartei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeari aplikazio-



GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Elkartearen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Asociaciones



eremuan sartuta dagoen, eta bestetik, lege horretan ezarritako gaitasun-betebeharrak eta betebeharrak formalak betetzen dituen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- Espediente hau pertsona legitimatuek eragin dute, eta berori erabakitzeko funtsezkotzat jotzen diren agiri eta xehetasun guztiak gehitu zaizkio.

BIGARRENA.- Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeko 29. atalean xedatutakoaren arabera, Elkarte organo eskudunak erabaki du estatutu-aldaketa, legez eta estatutuen bitartez ezarritako prozedurari men eginez. Aldaketa horrek, ordea, ez du elkartearen izaera juridikoa aldatu.

HIRUGARRENA.- Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Nagusiaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 29ko 145/2008 Dekretuko 4.2 artikulua, eta, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko, 57/2010 Dekretuak (zeinaren 5. artikulua 26 artikulua gehitzen dio 472/20089 Dekretuari) Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen zuzendariari ematen dio eskatutako inskripzioaren egokitasunari buruz ebazteko eskumena.

Horren guztiaren ondorioz,

Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoaren Elkarteen Erregistro Nagusiaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 29ko 145/2008 Dekretua, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea eta aplikatu daitekeen gainerako araudia **IKUSIRIK**, honako hau

EBATZI DUT:

ELGOIBAR (GIPUZKOA) ASOCIACIÓN "INAZIO BEREZIARTUA" MUSIKA ESKOLA ELKARTEA izeneko erakundeak erabakitako estatutu-aldaketa dagokion erregistro-orian inskripzioaren publikitate ondorioetarako soilik.

JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Elkarteen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Asociaciones

Asociaciones de Euskadi, y si reúne los requisitos de capacidad y de carácter formal establecidos en dicha ley.

FUNDAMENTOS JURIDICOS

PRIMERO.- El presente expediente ha sido promovido por personas legitimadas para ello, y al mismo se han aportado cuantos documentos y datos se consideran esenciales para su resolución.

SEGUNDO.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 29 de la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi, la modificación estatutaria en cuestión, ha sido acordada por el órgano competente de la Asociación con sujeción al procedimiento legal y estatutariamente establecido, sin que la misma implique alteración de la naturaleza jurídica de la entidad.

TERCERO.- El artículo 4.2 del Decreto 145/2008, de 29 de julio, por el que se aprueba el Reglamento General de Asociaciones del País Vasco, en relación con el artículo 5 del Decreto 57/2010, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública, el cual añade un artículo 26 al Decreto 472/2009 que atribuye al Director de Registros Administrativos y Régimen Local la competencia para resolver sobre la procedencia de la inscripción solicitada.

En virtud de cuanto antecede,

VISTA la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi, el Decreto 145/2008, de 29 de julio, por el que se aprueba el Reglamento General de Asociaciones del País Vasco, la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y demás legislación aplicable.

RESUELVO

Inscribir en la hoja registral correspondiente la modificación estatutaria acordada por la Entidad denominada ASOCIACIÓN "INAZIO BEREZIARTUA" MUSIKA ESKOLA ELKARTEA de ELGOIBAR (GIPUZKOA) los solos efectos de su publicidad.



Elkarteen Erregistroan inskribatzen denetik aurrera izango ditu soilik eraginak, fede oneko hirugarrenen aurrean, aldaketa horrek.

Administrazioarekiko bidea agortzen ez duenez, erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioke eskatzaileek Justizia eta Herri Administrazio Sailaren Araubide Juridikoaren sailburuorde andreari, erabakia jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean.

Dicha modificación sólo producirá efectos ante terceros de buena fe a partir de su inscripción en el Registro General de Asociaciones del País Vasco.

Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer Recurso de Alzada ante la Ilma. Sra. Viceconsejera de Régimen Jurídico del Departamento de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al del recibo de su notificación.

VITORIA-GASTEIZ, 2011ko Ekainaren 15.
En VITORIA-GASTEIZ, a 15 de Junio de 2011.



ADMINISTRAZIO ERREGISTROEN ETA TOKI ARAUBIDEAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE REGISTROS ADMINISTRATIVOS Y REGIMEN LOCAL
Iz./Fdo.: José Ignacio Pariente de Prada



Aita Agirrerren Plaza, 4

20870 ELGOIBAR

(Gipuzkoa)

Posta 101

Tel: 943 74 21 45

Fax: 943 74 03 62

E-mail: elgoibarmusika@terra.es

JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Elkarteen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACION PUBLICA
Registro de Asociaciones

Nik, ANA ISABEL RICO CASTILLA andreak, Elgoibar udalerrian dagoen "INAZIO BEREZIARETUA MUSIKA ESKOLA" elkarteko (Erregistro zenb.: RPG 1551) idazkariak, zera

ZIURTATZEN DUT:

2011 urteko abenduaren 16. egunean, 19:30 orduetan, estatutuen arabera deituta, Bazkideen Ezohiko Batzar Nagusia bildu zela estatuak aldatzeko. Aldaketa onartu egin zen, 73 pertsonako quorumarekin eta 62 boto alde, 11 abstentziokin. Horren ondorioz artikuluen idazketa aldatu zen, baina ez zen inolako aldaketarik izan Entitatearen izaera juridikoan. Aldaketak honakoak izan ziren:

- Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeari egokitzea.
- Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoari egokitzea.

Eta hau ziurtatzen dut, Elgoibarren, 2011ko martxoaren hogeita lauan.

IDAZKARIA

Oniritzia:

PRESIDENTEA



Aita Agirrerren Plaza, 4
20870 ELGOIBAR
(Gipuzkoa)
Posta 101
Tel.: 943 74 21 45
Fax: 943 74 03 62
E-mail: elgoibarmusika@terra.es



Nik, ANA ISABEL RICO CASTILLA andreak, Elgoibar herrian dagoen "INAZIO BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLA" Elkarteko (Erregistro-zk. RPG 1551) idazkariak, hauxe



ZIURTATZEN DUT:

2011ko martxoaren 17an, 19:30etan, Estatutuek ezarritako moduan deialdia egin ondoren, Bazkideen Ezohiko Batzar Orokorra bildu zela estatutuak aldatzeko. Aldaketa onartu egin zen, 73 pertsonako quorumarekin eta 62 boto alde eta 11 abstanzioekin.

Estatutuen aldaketa honakoa izan da:

Aldatutako artikulua: 2. eta 3. eta elkartearen izena.

Adierazitako guztia ziurtatzen dut Elgoibarren, 2011ko martxoaren hogeita lauan.

IDAZKARIA

OE
LEHENDAKARIA



Aita Agirrerren Plaza, 4
20870 ELGOIBAR
(Gipuzkoa)

Posta 101

Tel.: 943 74 21 45

Fax: 943 74 03 62

E-mail: elgoibarmusika@terra.es



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Elkarteen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACION PUBLICA
Registro de Asociaciones

ANA ISABEL RICO CASTILLA Andrea, ELKARTEA: "INAZIO BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLA" Elkarteen herria: ELGOIBAR, Erregistro-zk.: RPG 1551

Aipatutako elkarteko idazkaria naizen aldetik, hauxe

ZIURTATZEN DUT: Estatutuek ezarritakoaren arabera deialdia egin ondoren, Elgoibarren, 20011ko martxoaren 17an gauzatutako Batzar Orokorrean, 73 pertsonako quorumarekin eta 62 boto alde eta 11 abstentziorekin, besteak beste erabaki hauek hartu zirela:

LEHENENGOA: Zuzendaritza Batzordea berritzea. Pertsona hauek hautatu dira, derrigorrezko gehiengoarekin, ondoren aipatzen diren karguak betetzeko:

LEHENDAKARIA:

JOSE IGNACIO ARRIOLA GARCIA Jauna

NANa: 15.343.175-J

IDAZKARIA:

ANA ISABEL RICO CASTILLA Andrea

NANa: 15.379.649-D

LEHENDAKARIORDEA:

JOSE ANTONIO GOMEZ GARRIDO Jauna

NANa: 15.374.740-E

DIRUZAINA:

MARIVI AGIRREGOMEZKORTA URAIN Andrea

NANa: 15.348.484-D

BATZORDEKIDEA:

JOSE LUISA HUERGO PEREZ Andrea

NANa: 16.486.480-B

BATZORDEKIDEA:

JOSE LUIS GARAIZABAL IBARGÜENGOITIA Jauna

NANa: 72.239.934-Q

BIGARRENA: Aipatutako pertsona horiek ekitaldi horretan bertan onartu dituzte eman zaizkien karguak.

Elkartearen estatutuen arabera, Zuzendaritza Batzordeko kide horien agintaldia kargua jabetzan hartzen duten egunetik 4 urtekoa izango da, eta egun horretan bertan kargugabetuko dira ordura arte karguak betetzen ari ziren pertsonak. Kargugabetuak eta betetzen zituzten karguak honakoak dira:



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Elkarteen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Asociaciones

MANUEL SANTOS ALBA Jauna
NANa: 15.333.963
KARGUA: LEHENDAKARIA

M^a JOSE ZUBIAURRE LEYARISTI Andrea
NANa: 15.338.148-T
KARGUA: IDAZKARIA

HIRUGARRENA: Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeko 39-2-d) artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Errolda Nagusiaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 29ko 145/2008 Dekretuko 21. artikulua betez, aipatutako erabakia Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailaren Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorriari jakinaraztea, erregistroan behar bezala jasota gera dadin.

Eta hala jasota gera dadin eta izan beharreko ondorioak izan ditzan, idazki hau egiten dut Elgoibarren, 20011ko martxoaren 24an.

O.E.
SARTU DEN ETA
ATERA DEN LEHENDAKARIA

SARTU DEN ETA
ATERA DEN IDAZKARIA




JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Elkarteen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Asociaciones

**ELGOIBARKO INAZIO BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLAREN
ESTATUTUAK, EUSKADIKO ELKARTEEI BURUZKO EKAINAREN 22KO
7/2007 LEGEAN ETA ELKARTZEKO ESKUBIDEA ARAUTZEN DUEN
MARTXOAREN 22KO 1/2002 LEGE ORGANIKOAN EZARRITAKORA
EGOKITU ONDOREN.**

LEHEN KAPITULUA

IZENA



1. artikulua.- Elgoibarko "INAZIO BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLA" ELKARTEAREN Estatutu hauek 1984ko irailaren 14an inskribatu ziren erregistroan RPG 1551 zenbakiarekin eta orain aldatu egin dira Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorritik.

Elkartea arau hauen mende egongo da: aipatutako elkarteei buruzko legeak, estatutu hauek (legearen aurkakoak ez badira), elkartearen gobernuko organoek behar bezala hartutako erabakiak (legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira).



ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua.- Elkartea kultur helburuekin sortu zen, irabazi asmori gabe, eta guraso batzuen ekimenez eta Elgoibarko Udalaren laguntzaz, indarrean zeuden legeen arabera. Elkartearen helburu nagusia da musikagintzarekin lotutako espezialitate guztiak irakastea, hedatzea eta sustatzea: pianoa, eskusoinua, perkusioa, egurrezko haize tresnak, metalezko haize tresnak, musika tresna autoktonoak, dantza, kantua eta musika lengoia, etab., bai eta horiek guztiak hobetzeko eta garatzeko zein Elgoibarko musika ohiturei eusteko bultzatu daitezkeen guztiak ere.

Helburu horiek lortzeko ondoko jarduerak garatuko dira, aurretik ezarritako lege baldintzak beteta:

Ikasleak pedagogikoki aberasteko, herriko festen egutegian parte hartzeko, besteak beste, programatzen diren guztiak.

Aurreko atalean deskribatutako jardueraz gain, Elkaratek bere helburuak betetzeko honako hauek egin ahal izango ditu:



- Helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jardura ekonomikoak gauzatu.
- Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak izenpetu.
- Nolanahiko ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etorrira.

JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Elkarteen Erregistroa

MINISTERIO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Asociaciones

ELKARTEAREN EGOITZA

3. artikulua.- Elkarate honen egoitza helbide honetan egongo da: ELGOIBARKO AITA AGIRREREN PLAZA, 4.


Elkarateak beste lokal batzuk ere eduki ditzake Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokorrak hala erabakitzen badu.



LURRALDE EREMUA

4. artikulua.- Elkarate honek nagusiki ELGOIBARKO UDALERRIAN gauzatuko ditu bere zereginak.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA



5. artikulua.- "INAZIO BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLA" izeneko elkaratea iraunkorra izateko eratu da, eta VI. kapituluan esaten den bezala Ezohiko Batzar Orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezingo da desegin, edo legetan aurreikusitako arrazoiren batengatik.

Elkaratearen funtzionamendua eta barne antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarrizko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatutu xedapenak eta erabakiak.

BIGARREN KAPITULUA

GOBERNUKO ETA ADMINISTRAZIOKO ORGANOK

6. artikulua.- Elkaratearen gobernua eta administrazioa kide anitzeko organo hauen esku egongo da:

- Bazkideen Batzar Orokorra, organo gorena dena.

- Zuzendaritza Batzordea, kide anitzeko zuzendaritza organo iraunkorra dena.



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Elkarteen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
REGISTRACION PUBLICA
Registro de Asociaciones

BATZAR OROKORRA

- 7. artikulua.-** Batzar Orokorra bazkide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.

Honakoak dira Batzar Orokorraren ahalmenak:

- a) Elkartearen jarduera plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkarte desegitea.
- f) Lehendakaria, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte organoko gainerako kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea; eta horiek guztiak ikuskatu eta kontrolatzea.
- g) Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
- h) Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- i) Gobernu organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea, hala komeni bada.
- j) Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrak gobernu organoari eskuordetu diezaiokio horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- k) Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- l) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

- 8. artikulua.-** Batzar Orokorrak ohiko bilkurak eta ezohiko bilkurak egingo ditu.

- 9. artikulua.-** Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura: 4. hiruhilekoan izango da, 7. artikuluko a), b) eta c) idatzatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

- 10. artikulua.-** Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da ezohiko bilkuran, bere ekimenez edota bazkideen %25ek eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolahi ere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilduko da:

- a) Estatutuak aldatzeko.
- b) Elkarte desegiteko.

- 11. artikulua.-** Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira, eta bilkuren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gaitzerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik gutxienez hamabost egun pasatu beharko dira bilkura lehen deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tartea utzi beharko da.

Batzar Orokorrek, ohikoak nahiz ezohikoak, lehenengo deialdian, balio osoz eratauta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten bazkideen herena bertaratzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.- Batzar Orokorren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, nahiz eta bertaratuen nahiz ordezkatuena baiezko botoak ezezkak baino gehiago direnean. Alabaina, bertaratuen edo ordezkatuena gehiengo kualifikatua beharko da erabaki hauek hartzeko (baiezko botoak baliozko botoen erdia baino gehiago izatea, alegia).

- Elkartea desagitea.
- Estatutuak aldatzea.
- Ondasunak erabili edo besterentzea.
- Ordezkaritza organoko kideei ordaintzea.

13. artikulua.- Bazkideek beste edozein bazkideren esku utzi dezakete batzar orokorretara joateko ordezkaritza. Ordezkaritza hori idatziz eskuordetu beharko da, eta Batzarreko idazkariari eman bilera baino gutxienez 24 ordu lehenago. Elkartearen egoitza dagoen herritik kanpo bizi diren bazkideek ordezkaritza beste norbaiten esku uzteko agiria postaz bidali dezakete.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

14. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea da Batzar Orokorren xedapen eta zuzentzauei jarraikiz elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa. Bazkideek baino ezingo dute osatu ordezkaritza organoa.

Honakoek osatuko dute Zuzendaritza Batzordea:

- Lehendakaria
- Lehendakariordea
- Idazkaria
- Diruzaina
- Bi kide
- Musika Eskolako zuzendari teknikoak, aholkulari eta informatzailea den aldetik, hitz egiteko eskubidea izango du baina ez, ordea, botoa ematekoa.

Gutxienez urtean 2 aldiz bildu beharko dute, eta elkartearen ekintzak bideratzeko beharrezkoa den guztietan.

15. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara 3 aldiz jarraian, edo, tarteka 6 aldiz agertzen ez bada ikasturte batean (01-09tik 31-08ra), dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen.

16. artikulua.- Batzar Orokorrek hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak. Kargu horiek 4 urterako izendatuko dira Batzordeak berariaz baliogabetu ezean. Kargudun berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Registro Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Asociaciones

17. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, ezinbestean baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legetan ezarritako bateraezintasun arrazoirik ez izatea.
- b) Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c) Erakundeko bazkidea izatea.

18. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, lehendabizi, Batzorde Orokorrak izangaia hautatu behar du eta, gero, izendatu horrek kargua onartu behar du.

Zuzendaritza Batzordeko kideen dieta eta gastuak ordaintzea erabaki dezake Batzar Orokorrak.

19. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek kasu hauetan utziko dituzte karguak:

- a) Agintaldia bukatzen denean.
- b) Dimititzen baldin badute.
- c) Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean.
- d) Estatutu hauetako 15. artikulua aplikatuz, Batzar Orokorrak kargua baliogabetzea erabakitzen duenean.
- e) Hiltzen baldin badira.

a) idatz zatian agertzen dena baldin bada kargua uzteko arrazoa, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo Batzar Orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

b), c), d) eta e) idatz zatietan agertzen dena baldin bada arrazoa, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du Zuzendaritza Batzordeak, eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu izendapenak egingo ditu.

Organo honen osaeran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkartearen Erregistroari.

20. artikulua.- Honako hauek dira Zuzendaritza Batzordearen zereginak:

- a) Elkartearen eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideekin bat etorritik eta haren kontrolpean.
- b) Elkarteak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- c) Gastu eta sarreren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera orria Batzar Orokorrari aurkeztea, hark onar ditzan.
- d) Batzar Orokorraren bileretako Gai Zerrenda egitea, eta ohiko nahiz ezohiko Batzar Orokorrarako deialdiak egitea erabakitzea.
- e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
- f) Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatutuetako hutsuneak betetzea, betiere elkartearen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorritik.

- g) Batzar Orokorrak berariazko Erabakiaren bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eksklusibokoak.



- 21. artikulua.-** Zuzendaritza Batzordearen bilkurak lehendakariak erabaki edo batzordekide batek eskatzen duen bakoitzean egingo dira. Bilkurako buru lehendakaria izango da eta, hura ez badago, lehendakariordea; eta horien faltan, batzordekiderik zaharrena.



Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon behar du bilkuran. Berdinketa gertatuz gero, lehendakariak kalitateko botoa izango du.

Idazkariak bilera aktak egingo ditu eta akta horiek gero dagokion Liburuan transkribatuko dira.

KIDE BAKARREKO ORGANOKAK

LEHENDAKARIA

- 22. artikulua.-** Lehendakariak bere gain hartuko du elkartearen legezko ordezkariak, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatuko ditu. Era berean, aipaturiko bi organo horietako lehendakaria izango da.

- 23. artikulua.-** Lehendakariak honako eskumen hauek izango ditu:

- Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorraren bilera deiak egin, bileretan sortzen diren eztabaidak bideratu, eta boto berdinketa gertatuz gero kalitate botoarekin erabakitzea.
- Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea eta elkartearen zereginak bultzatu eta bideratzea.
- Balioztasunez erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- Edozein pertsona edo erakunde, aurrezki kutxa, banku pribatu eta ofizialen aldetik maileguak eskatzea, ematea, hitzartzea, entregatzea eta eskudirutan jasotzea, zenbatekoak, baldintzak, epeak eta ordaintzeko erak finkatuz, eta horretarako behar diren dokumentu guztiak izenpetuz.
- Ondasun higigarriak eta higiezinak, lehengaiak eta edozein motatako makineria, kredituak, akzioak eta eskubideak saltzea, erostea, ematea edo konpentsazio total edo partzialean ordainetan jasotzea, lagatzea, trukitzea eta kostu handiko bestelako edozein bide erabiltzea, prezioak, baldintzak, epeak eta ordaintzeko erak finkatuz.
- Establezimendu komertzialetan, aurrezki kutxetan eta bankuetan kontu korranteak eta kreditu kontu korranteak irekitzea, mobilizatzea eta baliogabetzea; kontu horietan erabilgarri dauden fondoak guztiz edo partzialki erabiltzea, ordainagiriak, taloiak, txekuek eta edozein motatako aginduak izenpetuz; bermeak baliogabetzea eta kentzea eta saldoei onarpena ematea edo ukatzea.
- Kanbio letrak, txekuek, taloiak, ordaindukoak, polizak, ordainagiriak eta edonolako komertzio efektuak igortzea, onartzea, endosatzea, abalitzea, negoziatzea, kobratzea eta

deskontatzea; horien zenbatekoa ordaintzea eta kobratzea eta protestatzea onarpen edo ordainketa faltagatik, eta onartzeari uko egitea; erresaka kontuak formulatzea eta kontuak onartzea edo inpugnatzea.

h) Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea.

i) Batzar Orokorrak berriazko Erabakiaren bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Elkartoen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Asociaciones

LEHENDAKARIORDEA

24. artikulua.- Lehendakariordeak lehendakariari lagunduko dio, eta lehendakariak aldi batean bere kargua bete ezin badu, lehendakariordeak ordezkatuko du. Era berean, lehendakariak berriaz eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak izango ditu.

IDAZKARIA

25. artikulua.- Idazkariari dagokio, zehazki, elkartean sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburuaz zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, elkarteen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratuko da, erakundearen agiri ofizialak zainduz, elkarteko liburuen eta artxiboen edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordeko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketan berri emateko egin beharreko jakinarazpenak eginez agintari eskudunari.

DIRUZAINA

26. artikulua.- Egindako diru sarrera eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar dizkio, eta horrek Batzar Orokorrari, hark onartu ditzan.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARTUAK IZATEKO BALDINTZA ETA PROZEDURAK ETA BAZKIDE MOTAK

27. artikulua.- Elkartekide izan nahi eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsona guztiak izan daitezke elkarteko bazkide:

- Ikasle adingabeen gurasoak, adin nagusiko ikasleak edo adingabe emantzipatuak, norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege baldintzaren menpe ez daudenak eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez dutenak.



LEGIURERIA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Asociaciones

28. artikulua.- Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea, bi bazkideren sinadurarekin eta lehendakariari zuzenduta. Lehendakariak eskaeraren berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena elkartean onartu ala ez. Erabakiaren aurkako gorako errekurtsua jar dakioko Batzar Orokorrari.

Gainera, Elkartek bestelako bazkide mota batzuk bereiz ditzake:

- a) *Sortzaileak* (Sorrera Akta izenpetzen dutenak)
- b) *Ohorezkoak* (partaide izateko beharrezko baldintzak betetzen dituzten arren, beren presentzia fisikoaz xede sozialei erantzun ezin dietenak). Bazkide horien kalitatea ohorezkoa da soilik eta, beraz, ez du kidearen izaera juridikoa ematen, eta ez du eskubiderik ematen Gobernu eta Administrazio Organoetan parte hartzeko, eta edonolako betebeharretatik libre daude.
- c) *Babesleak*, Elkarteari bitarteko ekonomikoak ematen dizkiote (emaileak), baina ez dute bertan partaidetza sozialik.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

29. artikulua.- Pertsona bazkide orok hau egiteko eskubidea du:

- 1) Elkarreei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak inpugnatzea, auzi jartzaileak inpugnatutako erabakiaren edukia ezagutu duen edo ezagutzeko aukera izan duen egunetik berrogei egun naturaleko epean.
- 2) Elkarrearen gobernu eta ordezkaritza organoen osaerari, elkarrearen kontu egoerari eta elkarrearen jardueraren garapenari buruzko informazioa jasotzea.
- 3) Elkarreko beste bazkideen nortasuna, diru sarreraren eta gastuen egoera, eta elkarrearen ekintzen garapenaren berri edozein unetan izatea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan.
- 4) Batzar Orokorretarako deiak jasotzea, Batzar Orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta, ondorio horretarako, eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.
- 5) Elkarrearen Estatutu hauen arabera, elkarreko zuzendaritza organoetan parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea.
- 6) Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta elkarrearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
- 7) Estatutuen eta, egonez gero, Barne Araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza organoetara eskakizunak eta kexak aurkeztea.
- 8) Talde ekintza sozialetan parte hartzea, eta bazkideentzako tresna komunak erabiltzea (elkarrearen egoitza, liburutegiak, eta abar).
- 9) Bazkideari diziplinako neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiei buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke.

- 10) Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartuta baina bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.



30. artikulua.- Bazkideen betebeharrak hauek dira:

- a) Elkartearen helburuekin bat etortzea eta helburu horiek betetzen laguntzea.
- b) Kuotak, derramak eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c) Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea.
- d) Elkarteko zuzendaritza organoek baliotasunez hartutako erabakiei men egin eta erabaki horiek betetzea.

JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Enregistros

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Asociaciones

BAZKIDE IZATEARI UZTEA

31. artikulua.- Bazkide izateari uzteko arrazoiak honako hauek izango dira:

1. Heriotza, edo, pertsona juridikoen kasuan (egonez gero), desegitea.
2. Bazkidea bere borondatez joatea.
3. Arrazoi hauengatik, bazkide izateari uzteko zigorra jasotzea: Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausteagatik.

ZIGOR ARAUAK

32. artikulua.- Bazkideek behin eta berriz hausten badituzte Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak, Zuzendaritza Batzordeak bazkide horiek zigortu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabete batera eskubideak kentzetik hasi eta elkartetik betiko kanporatzera arteko zigorra ezar daiteke, ondorengo artikuluek adierazitako moduan.

Horretarako, zigorgarriak izan daitezkeen jokabideak aztertzeke ikerketa egin dadila erabaki dezake lehendakariak. Ikerketaren instrukziogilea idazkaria izango da, eta berak proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurriak.

Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, idazkariak ez du horretan parte hartzerik izango (instrukziogilea delako), eta zigorra ezarri aurretik interesdunari entzunaldia eskainiko zaio. Zigortzeko erabakia arrazoitu egin beharko da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtsua jarri ahalko zaio Batzar Orokorrari.



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Asociaciones

33. artikulua.- Bazkideren batek elkartetik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten bada, hau da, Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren, lehendakariak idazkariari agindu diezaiolako aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, lehendakariak jarduerak artxibatzeke agintzea edo elkartetik kanporatzeko zigor espedienteari hasiera ematea erabaki dezake.

34. artikulua.- Elkartetik kanporatzeko zigor espedientea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gai zerrendan sartuko da kasua, eta batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du botorik izango espedienteko instrukziogilea izan den idazkariak.

Elkartetik kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio eta, era berean, hurrengo Ezohiko Batzar Orokorrean errekurtsioa aurkez dezakeela azalduko zaio. Hiru hilabeteren barruan batzar horretarako deirik egiten ez bada, errekurtsioa ebazteko batzarrerako deia egin beharko da. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak inputatuari bazkide eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Batzar Orokorrari kanporatzeko espedientea aurkeztuz gero, idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak interesdunak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza Batzar Orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.

35. artikulua.- Kanporatzeko erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegietara jo ahal izango du bere ustez erabakia Legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

36. artikulua.- Bazkideren bati Elkartetik kanporatzearen berri ematerakoan – berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako– harekin bete gabe dituen betebeharrak, egonez gero, bete ditzala eskatuko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Elkarteen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Asociaciones

SORRERAKO ONDAREA ETA AURREKONTU ARAUAK

37. artikulua.- Elkarateak ez dauka ondare sozialik.

38. artikulua.- Elkarateak, bere jarduerak gauzatzeko, diru baliabide hauek aurreikusten ditu:

- a) Sarrera kuotak.
- b) Erabakitzen diren aldizkako kuotak.
- c) Elkaratearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta legez jasotzen dituen diru laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
- d) Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharrekotzat erabakitzen dituen jarduera zilegietatik datozen diru sarrerak.

Elkarte eta ekonomi ekitaldia urtekoa izango da, eta urte bakoitzeko abuztuaren 31n itxiko da.

Jarduera ekonomikoak gauzatuz, zerbitzuak ematea barne, elkarateak lortzen dituen irabaziak bere helburuak betetzeko baino ez dira erabili beharko. Inola ere ezingo dira bazkideen artean banatu, ez eta haien ezkontideen edota haiekin antzeko afektibitate harremanean bizi diren pertsonen artean eta haien senideen artean ere. Ezingo zaizkie, halaber, irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

39. artikulua.- Estatutuak aldatzea propio horretarako deitutako bazkideen Ezohiko Batzar Orokorrean erabaki behar da. Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde txostengile bat izendatuko du, aldaketa proiektua idazteko. Proiektu hori Zuzendaritza Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta batzorde berak jarriko du proiektua amaitzeko epea.

40. artikulua.- Aldatzeko proiektua epe barruan idatzi eta gero, lehendakariak Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilkurako Gai Zerrendan sartuko du. Zuzendaritza Batzordeak proiektua onartuko du edo, bestela, batzorde txostengileari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.

Proiektua onartuz gero, Zuzendaritza Batzordeak hurrengo Batzar Orokorreko Gai Zerrendan sartzea erabakiko du edo, bestela, horretarako propio Batzar Orokor baterako deia egitea erabakiko du.

